

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

*Juan Miguel Atxutegi
Gerrikaetxebarria*

*Derio, Bizkaia
(1946)*

Aurkibidea



Biografia



Derioko Bekotexe baserrian sortua. 12 urterekin bertako seminaria joan zen eta bertan egon zen 21 urtera arte. 22rekin Erromara joan zen filosofia ikasketak egitera eta ostean Madrilen egon zen. Handik bueltatu eta filosofia ikasgaiko euskarazko irakasle bezala hasi zen beharrean. 1985. urtean politikan sartzea erabaki eta urte betez hezkuntzako delegatu bezala ibili zen Bizkaian eta Derioko alkate izan zen 16 urtez.

Zintak

DER-023

- **Proiektua:** Tximintx euskara elkarte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea - Zubiri, Itsasne
- **Data:** 2011-02-23
- **Iraupena:** 77 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Zubiri, Itsasne

Pasarteak

1. Militarrei buruzko usteak

- **Erref:** DER-023/003
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:02:07. **Bukatu:** 00:04:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

<p>Seminarioan literaturako irakaslearekin izandako tirabira. Berak etxean entzunda zeukan militarrek nahiko ezjakinak zirela eta Franco militarra zenez, "¿se ya sabe escribir o qué?" galdetu zion irakasleari. Irakaslea oso española ei zen eta izugarritzko errieta egin zion. </p>

Transkripzioa

Eta han seminarioan bai badekoaz nik holako kontuak edo historia batzuk. Nonbaiten agertu dire. Han egon giñen ikasten eta guk euki gendun irakasle bat oso española zana. Eta emoten euskun literatura. Eta berak emon eban literatura eta estrofak eta autoreak eta genero literarioak eta rollo guztie. Eta agertzen da gaur eguneko literaturan, gaur egunekoa edo

pasa dan mendeko literaturara eta non hasten dan esaten Francok idatzi zitula “las banderas rojas” edo. Nik ez nekien ezer. Eta ni aldeanotxue, ba. Ondo euskerea jakin barik eta... diñot, erdereak jakin barik ondo. Eta nik esan neutsen klasean: “Bueno, pero ¿ése ya sabe escribir o qué?”. Hasi jatan kriston bronkea botaten: badakila zer dan gorriekaz bizitea eta bueno... la de dios! Ha izan zen “la de dios”. Ta, bueno, gero ni joan nintzen neure arduradunarengana eta esan neutsen zer pase jaten klasean ta esan eusten: “Joan, joan olgetan hortik”. Ta joan nintzen errekreora olgetan, baiña disgustoa kristolakoa. Bota eusten bronka bat... la virgen! Nik etxean iñoiz entzunda militarrek, ba, bueno, nahiko inkultoak zirela eta. Eta Franco militarra zen lez, ba “Horrek, horrek zer idatziko dau horrek, ba?” Norbaitek idatziko otsan. Zeozer idazteketan, norbaitek idatziko eutsan. Iñoz entzunda be etxean, igual Pemán-ek edo, Jose María Pemán edo horrek idazten eutsazela diskursoak. “¿Ya sabe escribir ése?” ta kriston bronkea. Bueno, holan hasi giñen, ta gero holakoak euki genduzen bat edo bi edo.

2. Zuzenbidea ikasten hasi eta filosofia ikastea erabaki

- **Erref:** DER-023/005
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:04:24. **Bukatu:** 00:05:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Seminariotik irten eta Madrilera joan zen lanera, obra batean. Gero, unibertsitatara sartzeko probara aurkeztu zen eta gairitu egin zuen. Zuzenbidea ikasten hasi zen, baina ez zen bere gustukoa, epaiketa batean ikusi baitzuen zelan erabiltzen ziren lekukoak. Erromara joan eta han filosofia ikasten hasi zen. Urte baten buruan Madrilera itzuli zen.

3. Umetan erdara gutxi

- **Erref:** DER-023/007
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:06:05. **Bukatu:** 00:07:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Baserritarrek ziren eta umetan amari laguntzen zion Bilbora bandeja eramaten. Begoñan etxola bat zegoen eta handik pasa behar izaten zuten. Behin han zeudela euskaraz egiten, guardia zibil batek "hable usted en cristiano" esan zion eta berak ia ezin egin erdaraz.

4. Amona eta erdara

- **Erref:** DER-023/008
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:07:15. **Bukatu:** 00:08:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Amonak ez zekien ia erdaraz egiten eta horren gainean anekdota bat kontatzen du.

5. Bi talde kultural: asfaltoak eta morokilak

- **Erref:** DER-023/011
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:10:40. **Bukatu:** 00:13:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Txikitan Derioko kaleetan euskara entzuten zen. Bi talde kultural zeuden herrian: goikoak eta behekoak. Goikoak: baserritarrak, han dena euskaraz egiten zen. Behekoak: dena erdaraz. Bere taldean goiko bi eta beheko bi zeuden. Behekoak, erdaldunak eta ikasiak, eta goikoak, beraiek. Palatan aritzen zirenean, asfaltoek (behekoak) morokilen (goikoak) kontra jokatzeko zuten. Euskalduna izateak bere garaian gutxiago izatea esan nahi zuen. Gaur egun meritua da.

6. Euskaldunen egoera gaztetan

- **Erref:** DER-023/013
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:13:18. **Bukatu:** 00:16:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Seminarioa joan zenean, berak ez zekien zer zen batxilergoa. Hasieran uste zuen gutxienez ministroa izatea esan nahiko zuela. Berak latin apur bat zekienez, lagun bati euskarara itzultzen zion uler zezan. Euskaldunak elkarri laguntzen ibiltzen ziren. Gaztetan euskaldunak bigarren mailakoak ziren, konplexu horiek edukitzen zituzten.

7. Zelan bultzatu euskararen erabilera

- **Erref:** DER-023/021
- **Iraupena:** 0:06:11. **Hasi:** 00:29:55. **Bukatu:** 00:36:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Eskeletan gertatzen dena ikusita, ondorio bat ateratzen du berak: gazteentzat euskara zigor-hizkuntza da eta erdara guztiz alderantzizkoa. Beraz,

konplexuak kendu ostean, euskaraz ondo pasatzeko normaltasuna lortu behar da. Adibidez, kirola euskaraz gozatuz. Euskara normaldu egin behar da.

8. Derioko udaleko alkate izan zeneko lanak

- **Erref:** DER-023/023
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:37:58. **Bukatu:** 00:39:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

<p>1983an Txorierriko herri guztiak Bilbotik banandu ziren. 1987an bera alkate izan zenean, ez zegoen dirurik, ez azpiegiturarik, ez ezer. Errepideak asfaltatu egin behar ziren, uraren hodiak aldatu... Ikusten ez zen lan asko egin behar izan zuten.</p>

9. Nazionalismoa desargetzeko eskaera

- **Erref:** DER-023/025
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:41:53. **Bukatu:** 00:43:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Madriren mezara joan zen eta horra non apaizak bota zuen: "Nazionalismoak desager daitezten...". Eta berak buruari bueltaka: "Nazionalismo espainola izan ezik?". Nazionalismoari buruzko gogoeta egiten du.

10. Euskarari emandako bultzada bera alkatea izan zenean

- **Erref:** DER-023/037
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:53:52. **Bukatu:** 00:56:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Bera alkatea izan zenean, egiturak sortzen hasi ziren. Egin zuten lehenengo gauza D eredia sartzea izan zen. Euskaltegi bat ere egin zuten eta euskararentzat laguntzak ematen hasi. Euskaltegieta ikasle kopuruaren arabera diru-laguntzak ematen zituzten

11. Seminarioko bizimodua

- **Erref:** DER-023/040
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:57:37. **Bukatu:** 01:01:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

<p>Diziplina handia zegoen seminarioan eta nahiko gogorra zen bizitza, baina interesgarria, hala ere. 06:30ean altxatzen ziren eta 10:00etan oheratu.</p>

12. Apaizak homosexualitatearen beldur

- **Erref:** DER-023/042
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:01:30. **Bukatu:** 01:03:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » LGTBQ+

Laburpena:

Seminarioan mutil asko ziren, arazoak ere bazeuden. Apaizen beldurra ikasleak homosexualak izatea zen. Ezin zuten elkar ukitu. Ikasleek ez zuten hori txarto ikusten, azken batean apaizek beldur hori izatea ere normala iruditzen baitzitzaien. Gaur egun homosexualitatea hobeto ikusita dago.

13. Erroman ikasten

- **Erref:** DER-023/051
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 01:06:11. **Bukatu:** 01:07:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Erroman lizentziatura eklesiastikoa ematen zuten. Ikasgai asko baliozkotzen zituzten. Berak italierarik ez zekien baina azkar ikasten da. Alde handia zegoen, diktadura batetik irten eta libre hitz egin ahal izatera.

14. Askatasun politikoa Erroman

- **Erref:** DER-023/053
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:08:10. **Bukatu:** 01:09:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Erroman harrituta gelditu zen manifestazioak eta mitinak askatasunez egiten zirelako.

15. Erroman iritzi libreak

- **Erref:** DER-023/055
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 01:09:43. **Bukatu:** 01:12:42

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Erroman egunkariak saltzen zituzten lekuetan, egunkaria pintza batekin eskegita uzten zuten eta jendeak berri nagusiak irakurtzen zituen euren artean komentatuz. Zinearen inguruan ere ematen zuten iritzia. Modu naturalean egiten zen. Italian giro ona zegoen. Gizonak elkar besarkatzen ikusten zituzten edozein lekutan. Han normala zen.

16. Umetako gaiztakeriak

- **Erref:** DER-023/064
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:17:33. **Bukatu:** 01:19:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Lagunekin irten eta gaiztakeriak egiten zituzten. Mungiako bidean partiduak jokatzen zituzten. Bidean kalabaza bat jartzen zuten, barrutik hutsituta kandela batekin eta begiak eginda. Beraiek arto artean ezkutatzen ziren auto bat igaro arte. Aldekonen zegoen iturri batetik deskaptableetan zetorren jendea bustitzen zuten.

17. Umetako jolasak

- **Erref:** DER-023/065
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:19:17. **Bukatu:** 01:20:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetan ez ziren joaten Bilbora. Marretan jokatzen zuten. Joko pare bat azaltzen ditu.

18. Herriko eskolako zigor gogorak

- **Erref:** DER-023/068
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 01:21:43. **Bukatu:** 01:24:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

<p>Eskola publikoan, herri-eskolan, ilaran jarrita Cara al Sol abesten zuten. Francoren alde hildakoen oroimenez marmol bat zegoen eta harantz begira kantatzen zuten. Berak ez zuen inoiz letra ikasi. Zigorrak

nahiko gogorrak ziren, eta jo ere egiten zen. Eskola unitarioak izaten ziren, herriko guztiek ikasten zuten han, sei urtetik 14 urtera arte. Mutilak klase batean eta neskak beste batean egoten ziren. Arbelak tripode batean zeuden, ez hormaren kontra. Behin irakasle batek 14 urteko mutil bat jo zuen, arbelaren kontra joan eta apurtu egin zuen. Oso gogorra zen. Maisuak erregimenaren aldekoak ziren. Denak ziren erdaldunak.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com